

Lehenagoak, orainagoak eta biharkoak

Deia, 1977-07-29.

Joxe Azurmendi-ren lan mamitsu batek sortu da auzi hau.

Eta jakingarria denez, azalpentxo bat egin nahi diot hemen.

Lan honetan ("Euskal Herri edo Euzkadiko Seinorio", DEIA, 23.7.77) Azurmendik hil berriak diren gudari batzuk exenplu jarriaz amaitzen du.

Eta ohar hau egiten zidan aberkide gazte eta burrukari batek: "Ezin al zituen horien aurretik hildakoak ere aipatu?" Eta, egia, aipatzekoak dira aurretikoak ere.

Baina, zergatik gure sentikortasun hau?

Sentikortasun hau ez da inoren monopolio. Zaharrago garenok erakusten dugu askotan; gure aurretiko batzuk ere bai; eta gaur-gaurko direnek ere berea badute.

Denok gara sentikorrak, minberak.

Zergatik hau apur bat aztertzeak gure akats hau gainditzeko laguntza emango digun asmoarekin nahi dut gaia erabili.

Askotan, arrazoi bidez uler-bideak egiten dira.

Batetik, bakoitzak bere sasoiko gertakizunak eta gizonak gogoratzea normala da; gainera, bakoitzak bere garaian gertatu direnekin solidaritatea, lagunkidetasuna, sentitzea ere legezko da. Lege fisiko batek hainako funtsa du gizonaren joera honek.

Bestetik, garaiz kanpo, bakoitzaren kidetasun politikoak eragiten dio gizonaren berekoitasunari; eta adin berdineko ez direnak ere elkartzen ditu askotan politikak.

Joera horiek berezko ditu gizonak; baina berezko dugun hau arrazoi bidez gainditzeko ahalegindu behar dugu, batez ere auziak garrantzitsu direnean.

Abertzale bagara behintzat.

Aberria, eskakorra da, exigentea.

Orain dela berrogei urte hala izan zen; orain dela hamar hala zen; gaur bertan halaxe da; bihar ere halatsu izango da.

Gure aitonentzat, 1936ko guda bizi-bizi ari zela. Santakruz apaiza bezalakorik ez zen, eta honekin zebiltzala hil zirenak baino foruzaleagorik ere ez. Azken guda hau bizi izan dutenentzat, berriz, ordukoak izan ziren berebizikoak. Gaurko gazte batzuentzat, azkenengo hil zerrendarekin irekiko lituzteke gure herriak askatasunaren alde egin dituen borrokak.

Bixtan da, denak garela honetan errudun.

Aberria, denena da, eta betikoa.

Batzuetan, batzuek jasan behar izan dituzte bateko eta besteko zamak. Astunagoak, arinagoak. Batzuk besteak baino haizatuagoak izan dira. ixileko, asko. Hemen, zaila da neurketa objetiboki egitea; garaiz-garai aldatzen baitira neurriak ere.

Euzkadiren alde hil diren guziek merezi dute gure errespetua eta mirespena ere. Inork gogoratzen ez dituen eta hala ere gure Herria den bezala iraun arazteko beharrezko izan ziren sakrifizioak; Arana, Kanpion eta bestek gure herriaren gogoan

itsasi zituztenak; bi guda karlista ikaragarriak; 1936koa, gogorra eta ondorio aberats asko ekarri diguna; geroztikoak, urte latz eta odoltsuak; gaurko borrokak; etorriko direnak.

Denek, abertzaletasunaren kate luze eta etengabe bat osatzen dute.

Gaur oraindik bizi garen adin guzietakoek behar ditugu gogoan denak euki. Noski, bakoitzak bereak izango ditugu gogokoago, normala den bezala; baina, batez ere ez ditzagun aurretik joandakoak ahaztu.

Ez nahita, behintzat.

Ni ziur nago, Joxe Azurmendik azken horietako eraildu bi bakar horiek izenez aipatzen baditu, ez dela gainontzekoak axola ez zaizkiolako; bere garaikoak eta behar bada bere-bere duen askatasunean inor gutxietsi gabe aipagarriago iruditu zaizkiolako.

Kazetaritzako lan batean denak ez aipatzea ez da hutsa.

Batzuk eskusiban aipatzea, bai, izango litzateke erru astuna.

Honelako arazoak gure artean sortzen direnean, eta sarritan gertatu ohi da, puntu horiek eta beste batzuk ere gogoan euki behar genituzke.

Euzkadi denon artean ari gara egiten; eta ez atzokoak bakarrik, ez gaurkoak bakarrik; biharko borroka eta heriotz-ordaintzak ere esker zai daude dagoeneko-eta.